



euskalmendizalefederazioa

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Ezohiko Batzar Orokorra

Eguna: 2017ko azaroak 11, larunbata

Ordua: 13:00etan

Lekua: Elgoibar, Makina Erremintaren Institutua

2017ko azaroaren 11n, larunbatean, 13:00etan hasi da EMFren Ezohiko Batzar Orokorra, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan.

Honako hauek zuzendu dute batzarra: José Ramón Alonso lehendakariak, Leire Salazar lehendakariordeak, Jose Antonio Arriola diruzainak, Vicente López idazkariak, eta Alberto Montoya eta David Alday batzordekideek.

Parte-hartzaileak:

Zerrenda atxikita doa. Parte hartu dutenek, EMFren batzarreko 28 kidek, batzarreko kideen % 14,89 ordezkatzeko dute.

Aztergai hauek izan dira, GAI-ZERRENDAREN arabera:

1. Ehun mendien araudiaren onarpena

1. Ehun mendien araudiaren onarpena.

Idazkariak batzarrean parte hartu dutenen kopurua eta dagokion boto kopurua begiratu ditu: 51 boto, 25 klubetakoak eta kirolarien 3 ordezkariak.

✓ *EMFren lehendakaria*

Euskal Herriko Mendien Katalogoaren edizio berria dela-eta, Ehun Mendien Lehiaketaren araudia berraztertu da, eta berrazterketarako 12 proposamen jaso dira. Horiek aztertu ondoren, araudiaren zirriborroa egin da, eta horixe da batzarrean aurkeztu dena, ezagutarazteko eta onartzeko, hala badagokio. Anaia Nagusia den Joseba Undurragak aurkeztu du, eta lehendakaritza mahaira gerturatu da, Ehun Mendietako Anaidiarekin lotutako hainbat gairi eta lehiaketaren araudiari buruz hitz egiteko.

- Ehun Mendietako Anaidiaren idazkaria, Joseba Undurraga

Aurreko idazkaria, Alberto González, ordezkatu zuen, Anaidia modernizatzeko ideiarekin.

Mendien Katalogo berria argitaratzean, araudiaren anbiguitasuna saihestu nahi du.

Araudia adosteko eztabaida ireki da; proposatutako aldaketak ez dira oso esanguratsuak, eta irizpideen inguruko anbiguitasunak argitzea da kontua funtsean.

Anaidiak Mendien Katalogoaren edizioarekin zerikusirik ez duela argitu nahi du, historialak ontzat emateaz arduratzen baita soilik.

Hizkuntzan, generoaren ikuspegia aztertzen ari direla azaldu du amaitzeko, eta euskarazko bertsioari dagokionez, txostenen bat jasotzea falta dela. Lehiaketa bakoitza noiz hasiko den eta noiz amaituko den izan da gehien eztabaidatu den gaia.

- Arantza Lazurtegik hartu du hitza, eta, Munarrikolanda klubeko lehendakaria den arren, araudia landu duten taldeko kide gisa eta, aldi berean, Pyrenaica aldizkariaren Erredakzio Batzordeko kide gisa hitz egin du.

Mendien Katalogo berriaren argitalpenari dagokionez, dena prest dago, eta abenduaren 31 baino lehen argitaratuko dela uste du.

- Ehun Mendietako Anaidiaren idazkaria, Joseba Undurraga Aurreko esku-hartzearen ondoren eta 2018ko aurrekontuak ohiko batzarrean onartu ondoren, azken xedapenen 1. A proposamena egokia dela erabaki da.

1. A- Honako araudi hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztzen diren eskariei aplikatuko zaie.

Hauek dira beste berrikuntza batzuk:

- Lehiaketa hasten denean indarrean dagoen Mendien Katalogoa aplikatuko da.
- Historialak aurkezteko azken epea martxoaren 31 izango da.

Historialak baliozkotzeko prozesu egitekotsua azaldu du. Askok atzera bota direla ikusita, eta historial batzuekin, eta baita klub batzuekin ere, arazoak daudela ikusita, azaldu du oso garrantzitsua dela lehiaketaren izen ona eta espiritua berreskuratzea eta klubek ere esku hartzea (iaz, 147 historial aurkeztu ziren, eta horietatik % 60 itzuli egin ziren).

- Anaidiaren logoa modernizatu eta euskaldundu egin da.

Aho batez onartu da Ehun Mendien Lehiaketaren araudia.

Gai-zerrendako puntuarekin amaitzeko, Lehendakariak, EMFren Zuzendaritza Batzordearen eta bileran dauden batzarkide guztien izenean, eskerrak eman dizkie Anaia Nagusiarri eta haren taldeari, egin duten lan handiagatik.

Eta aztertzeko gai guztiak aztertuta, amaitutzat eman da batzarra, 13:25ean.



Sinadura: EMFren idazkaria
VICENTE LÓPEZ



EMFren lehendakariak ontzat emana
JOSÉ RAMÓN ALONSO

EMF-REN EZOHIKO BATZAR OROKORREAN PARTE HARTU DUTENAK

2017ko azaroak 11 – Elgoibar

KLUBAK:

15.01.003	GAZTEIZ M. T.	ARABA
15.01.011	SAN IGNACIO KLUBA	ARABA
15.01.026	ZUIA M. T. "ATZABAL" ELKARTEA	ARABA
15.20.001	ALPINO UZTURRE ELKARTEA	GIPUZKOA
15.20.011	JAIZKIBEL M. T.	GIPUZKOA
15.20.014	ANTIGUOKO MENDIZALEEN ELKARTEA	GIPUZKOA
15.20.024	AIZKARDI M. E.	GIPUZKOA
15.20.032	PAGOETA M. E.	GIPUZKOA
15.20.054	GOIERRI K.E.	GIPUZKOA
15.20.059	ARALARKO ADISKIDEAK	GIPUZKOA
15.48.005	DEUSTUKO MENDITARRAK	BIZKAIA
15.48.009	ARROLETZA A.T.	BIZKAIA
15.48.010	ARTIBAI M. T.	BIZKAIA
15.48.013	ERDELLA MENDIZALE TALDEA	BIZKAIA
15.48.016	GANZABAL Mendi Taldea	BIZKAIA
15.48.017	GOIKO MENDI M. T.	BIZKAIA
15.48.022	ALPINO TABIRA MENDIZALE TALDEA	BIZKAIA
15.48.023	TURISTA BARAKALDO	BIZKAIA
15.48.026	GANERANTZ M. T.	BIZKAIA
15.48.039	ENKARTERRI M. E.	BIZKAIA

15.48.042	GOIGAIN M. T.	BIZKAIA
15.48.054	EGUNSENTIA M. T.	BIZKAIA
15.48.066	GAILURRA M. T.	BIZKAIA
15.48.075	MUNARRIKOLANDA	BIZKAIA
15.48.215	UNTZA M. T.	BIZKAIA

KIROLARIAK

ALONSO RODRIGO, JOSE RAMÓN	BIZKAIA
UNDURRAGA BIDASOLO, JOSEBA	BIZKAIA
VIVAR MORENO, VICTOR MANUEL	BIZKAIA